



#### Matrikula prezioa:

Matrikula arrunta: 70 □

Antzerkizale, Kantuzale, Ipuin kontalari edo Bertsozale Elkarteetako bazkideak: 45 □

Aiztondo Mankomunitateko herrietako biztanleak: 45 □

Ikasle, langabetu eta erretiratuak: 40 □

#### Izen-ematea:

Webgunean: [www.mintzola.com](http://www.mintzola.com)

Telefonoz: (0034) 943 693870

Ekainaren 12tik 25era

#### Ordainketa:

2095 5381 15 1063553993 kontu korrontean (izen-abizenak adierazita)

#### Agiriak:

Jardunaldien lehen egunean ordainketa agiria aurkeztu behar da.

Matrikulan beharpena dutenek egiaztagiriak aurkeztuko dituzte jardunaldien lehen egunean.

#### EHUren kredituak:

Ikastaro honetan parte hartzen duten Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleek kreditu bat eskuratuko dute.

#### OHARRAK:

- Gabi de la Mazaren ikastarorako: USB bat ekartzea komeni da (gutxienez 8Gbkoa) banatuko ditugun materialak etxera eraman ahal izateko.
- Uztailaren 5eko tailerretarako: jantzi erosoak ekartzea komeni da ariketetarako.

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Euskal  
Kantuzaleen  
Elkarte



Ipuin  
Kontalari  
Taldea



# Jardunaldiak

## Hitza jolas

Villabonan · 2013ko uztailaren 3, 4 eta 5ean





Sarrera:

**Hitza jolas:** ahozotasuna helburu, hamaika jolas baliatzen ohi dira hezkuntza arautu zein ez arautuan.

**Ahozotasuna** eta ahozko generoak hezkuntzan lantzeko premiari heldu diogu, baina oraingoan **gozamenetik** abiatu, **jolasetik**. Jolasa ongi pasatzea baino gehiago da; tresna aski baliagarria da ahozko generoak lantzeko. Ahozotasunean trebatzea eragiten duten **jolasen** eta **ariketen** berri emango da jardunaldiotan, dela **gogoeta** moduan, dela **tailer praktikoa** moduan.



Nori zuzendua:

Ahozotasunaren lanketan interesa duen oro asetzeko jardunaldiak dira, baina batez ere jomugan ditugu hezkuntza arautuko eta ez arautuko **irakasleak**; halaber **aisialdiko begiraleak**. Hots, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleak, euskaltegi, udaleku, barnetegi, antzerki, bertso-eskola, kantu zein ipuin irakasleak. Beraien guneetan praktikan jartzeko gogoeta, jolas eta ariketak eskainiko dira. Esan gabe doa, antzerki, bertsolaritza, ipuingintza zein kantagintzan ari diren sortzaile zein zaleentzat ere egokiak dira jardunaldiok.

## uztailaren 3an asteazkena

- × 08:30 / 09:00  
Harrera / Karpeta banaketa
- × 09:00 / 09:15  
SARRERA
- × 09:15 / 10:00  
Jolas-hitzak:  
igarkizunetik iragarkizunera  
  
*Juan Kruz Igerabide*  
(*Euskal Herriko Unibertsitatea*)
- × 10:00 / 10:45  
Jolasaren hizkuntza eta  
hizkuntzaren jolasa  
  
*Jaime Altuna*  
(*Urtxintxa Aisialdi Eskola*)
- × 10:45 / 11:15  
Atsedena
- × 11:15 / 12:15  
Kontaktaren erritmoan:  
jolasean elkarrekin  
(performance komentatua)  
  
*Pello Mari Añorga*  
(*ipuin kontalaria*)
- × 12:15 / 13:30  
MAHAI INGURUA  
Juan Kruz Igerabide, Jaime Altuna  
eta Pello Mari Añorga

## uztailaren 4an osteguna

- × 09:00 / 09:15  
SARRERA
- × 09:15 / 10:15  
Hitza jostailua bertso-eskolan  
(tailerra)  
  
*Oihane Perea*  
(*bertsolaritza irakaslea*)
- × 10:15 / 11:45  
Kantu jolasa:  
karaokeak prestatzen ikasteko tailerra  
  
*Gabi de la Maza*  
(*Lehen Hezkuntzako irakasle eta  
barnetegi zuzendaria*)
- × 11:45 / 12:15  
Atsedena
- × 12:15 / 13:45  
Kantuan: gorputz eta arimarekin  
jolasean (tailerra)  
  
*Oskar Estanga*  
(*irakasle, kantaldi dinamizatzaile  
eta bertsolaria*)

## uztailaren 5ean ostirala

- × 09:00 / 09:15  
SARRERA
- × 09:15 / 11:15  
Jolasetik antzerkira (tailerra)  
  
*Ainara Gurrutxaga eta Urko Rekondo*  
(*Dejabu panpin laborategia*)
- × 11:15 / 11:45  
Atsedena
- × 11:45 / 13:45  
Joko eszenikoa (tailerra)  
  
*Eñaut Gantxegi*  
(*Donostiako Arte Eszenikoen  
Tailerreko irakaslea*)
- × 13:45 / 14:00  
Amaiera.  
Ziurtagirien banaketa



Noiz eta non:

2013ko uztailaren 3, 4 eta 5ean

Mintzolan,  
Villabonako Subijana etxean  
(Kale Nagusia, 70)